

B

BARREN

TOKIKOM



Herritarren jauzia, aurrera



Janire Elordi

Tira, Maitane, berriz ika-mikan hastea dagokigula-eta, galdera egingo dizut hasieratik: bereziki gustatzen al zaizkizu udako asteburuak? Izan ere, zeinen atsegina den

uda bere egun luze eta temperatura epelekin... baina, jakin nahi duzu zer duten aste-hondarrok niri bereziki gustatzeko? Kontatuko dizut bal!

Bada, lehen mailako futbol liga garrantzitsua bukatuta, futbol-jokalari galaktikoak oporretan, komunikabideetan indarra galtzen du futbolaren gaiak. Hala ere, beste kirol batzuen berriek garrantzi gehiago izateko duten aukeraren kontra, bataren gola eta bestearen pitatu gabeko penaltia komentatu eta errepikatzerik ezean, nork-nork fitxatuko duen, taldeak nola eraberrituko diren eta holakoekin jarduten dute, betiko kirol albisteen atalak bete ezinik.

“Poza eman dit Munduko Kopa dela eta jende ugari protestan irten dela jakiteak”

Eta *malaletxea* ateratzen hasita, ezin ulertu nola miresten den berton ere, munduan ospe handiena duen futbol liga, klubik gehienek Ogasunari ehunka milioi euro zor izan arren. Eta ezin ulertu era berean, Ogasun horrek berak nola baimentzen dien sozietate horiei halako zorrak izatea!

Duela zortzi urte, Munduko Kopa Alemanian jokatu zenean, partiden inguruan sortzen zen giroa gertutik bizitzeko aukera izan nuen. Ikaragarria zen etxeko taldeak irabazten zuen bakoitzean horrenbeste lagun beren eguneroko bizitzetan inolako hobekuntza eta aldaketarik ekarriko ez zieten garaipenak gisa horretako ilusioz ospatzen ikustea! Aurten ostera, poza eman dit, Brasilen, Munduko Kopa dela eta jende ugari kalera protestan irten dela jakiteak. Gustukoago zalaparta klase hori.



Maitane Mendikute

Kaixo, Jani!


Ba zure antzera, neuk ere gogoko ditut udako asteburu epelak! Baita aste egunak ere! Udazalea naizela esan dezaket! Arrazoiak? Ba ugari, noski! Eguraldi ona, opor-usaina, iluntze luzeak, umore ona, zerbeztaxo freskoa, hondartza, mendia... futbola? Egia esan, ez dut sekula horretan pentsatu, Jani! Baina udako asteburuetan futbol partida gutxiago badaude, arrazoi bat gehiago udazalea izateko!

Neu ere ez naiz futbol jarraitzailea izan sekula. Baina badirudi guttiz sartuta dugula futbola gure eguneroko bizitzatan. Eta uste dut behar ditugula horrelako afiziotxoak, eta noiz edo noizko pozak ere (begira Eibar Lehen Mailarara igotzeak sortu duena). Talde jokua den heinean, kirol polita izan daitekeela uste dut. Aldamenero herrikoen aurkako partidak, pikeak, lehia... Baina non geratu da hori guztia txapeldunen ligan? Nori inporta zaio jokalaria herrikoa, auzokoa edota antipodetakoa den? Onena izatea da kuestioa! Eta garestia, noski!

“Protesta egiten dute, bai, Brasilen. Eta arrazoiarekin!”

Egia esan, Munduko Kopek eman dezakete bakoitzak bere herriaren alde egiteko aukera! Hemen ere, non geratzen da ba gu-rea? Dena den, Brasilgo Munduko Koparen harira, uste dut munduan egunero gertatzen ari denaren isla garbia dela hangoa. Oso era deskaratuan, noski! Paradojikoan eta exageratuan. Luxuz betetako futbol zelai, instalazio, hotel, etab. luzeak, aldamenean, garbiketa egiteko edo, hainbat jende beraien txabola/etxe gabe gertatzen den bitartean. Eta biztanleen 5etik 1a-edo muturreko pobrezian!. Protesta egiten dute, bai! Eta arrazoiarekin!

Hastear izango da ba Munduko Kopa ezta? Geldituko al gara udako iluntze epel batean zerbeztaxo bat hartu eta Munduko Kopa ikusteko? Hau gogoia!

 **PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP**
OHIKO BATZAR NAGUSIA
 Deialdia
 Eguna : 2014ko ekainaren 17a
 Ordua: 20:30ean lehen deialdian eta 21:00etan bigarrenean
 Tokia: Ikastola. Ernuaranbide, 7 – Elgoibar

 **CORDON VILARCHAO**
DEKORAZIOA
 Kanpo eta barneko estalura
 Zoluzak ezartzeko
 Lakotak: eguz, aluminio, PVC
 Pintura kolorea
 San Roke, 7 beheak
 Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 medulak
 Tel. 943 748 570
 GRUPO HUNIMET

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mike Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Ikastolaren Eguneko lantaldearen ahotara hitz bat, eskerrik asko!

Eskerrik asko Bankoa, Beristain logistika, Karmelo Iriondo, Idama, Debemen, Rosa liburudenda, Sigma Bazarra, Mary Harategia, TX4 Fitness, Alkorta bakailoak, Amagoia gozotokia, Sigma jatetxea, Amaia fruta denda, Azkue argazkiak, BBVA, Caramel, Caja Rural Navarra, Coviran, Eizaguirre, Astigarraga, Elustondo Banaketak, Goiara, Doña Mercedes, Ferpi, Ize, Pelegrin, Iriondo K, Jai Alai, Julito Bueno, Netto, Gorbea, Karkizano, Katrillejo estankoa, King Kong, Gozo-toki, Klitz, Laboral Kutxa, La Pera, Leigar, La Caixa, Mara, Jaione Tudela, Mausitxa, Mekanosa, Membrillera, Nava, Kutxabank, Noa, Pelegrin, Pitxintxu, Pol – Pol, 2 zenbakidun estankoa, Sabadell, Sanlo, S Roke kafetegia, Karakate Jatetxea, Sarasketa, Sugar, Urkotronik, Zazpi, Viento Sur, Zumaia Geoparkea, Aranburu, Elgoibarko Izarra eta Eroski Bidaiaki, azaldu duzuen laguntzeko prestutasunagatik.

Mila esker Jasone Osoro, Jon Eugi, Markel Bergara eta Danele Sarriugarteri, bihotz zati bat bertan duzuela erakusteagatik.

Esker anitz Julian Jantzi, Juanito Oiartzabal eta Markel Susaetari, Ikastola Egunarekin bat egitearren.

Eskerrik asko DBH 3 ko ikasleei. Benetan primerako jarrera eta lantalde bikaina!

Mila esker bertaratu eta parte hartu zenuen guztioi, zuek gabe ez litzatekeelako festarik!

Bukatzeko eskerrik asko guraso, irakasle, eta norbanako guztioi, ilusioz, borronteaz eta elkarlanez egindako guztiagatik. Zorionak, ekipo!

Antolakuntza Batzordea

KUTXABANK: Banku publiko eta soziala!

Kezka adierazi nahi dugu datozen asteotan EAJK eta PPK, PSEren laguntzarekin, Kutxak likidatu nahi dituztelako. Inolako eztabaida sozialik gabe, korrika eta presaka, PNVk hilabete honetan kutxak likidatu nahi ditu, eta fundazio pribatu bihurtu. PNVk eta PPK ezkutu adostu zituzten estatutuak pasa den abenduan, fundazio legearen inguruko akor-

dio bat erdietsi ondoren. Lege horren arabera, tamaina batetik aurrera kutxek desagertu beharra dute banku-fundazio pribatu bihurtzeko, horrela pribatizazioari ateak parez pare irekiz. Ondoren alferrik izango da herritarren gehien-goak zein eragile sozialek aldarrikatu eta eskatzen duten kutxen izaera eta jabego publiko aldarrikatzea.

Gaia kalera atera eta herritarrak informatzeko hitzaldia antolatu dugu datorren ostegunean, hilak 19, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bertan, Ainhoa Beola eta Ino Gallparsorok, Kutxako organoetako parte hartzaileek, Kutxaren berri emango digute. Bestalde, eragileek ekainaren 21erako deitu duten manifestaldira joateko deia ere egiten dizuegu. Salaketak eta ekimenak ere aurkeztuko ditugu erakunde publikoetan eta baita hiru euskal kutxetan. Ezin dugu 80.000 milioi gutxi batzuen eskuetan utzi, ezta kutxen hasierako helburuak ezkutu galtzen utzi ere.

Dei bat egiten diogu jendarteari kutxen pribatizazioa ekiditeko. Euskal kutxak eta Kutxabank gizarte honen zerbitzura jarri behar dira. Hau da, herri eta gizarte honek dituen arazoak konpontzeko tresnak izan behar dira, eta ez arazoaren beste atal bat. Beharrezkoa da Kutxabank pribatizatorako bidean jarri duen kudeaketa eredu amaiteza. Interes ekonomikoak herritarren interesen aurretik jartzen dituen eredu bidegabekoa bertan behera utzi behar dute EAJK, PPK eta haiek babesten ari den PSEK.

EHBildu Elgoibar



Zuhaitzak moztu eta ibaira bota dituzte Altzolan: “Ez dakigu zer gertatzen ari den azkenaldi honetan Altzolako arbolekin, baina oraingoan moztu eta ibaira bota dituzte. Ingurunea denon artean zaindu behar dugu”. Udalak dio, zuhaitzen iñausketa era kontrolatua egin zela, eta errekan agertu den zuhaitza haizeak bota zuela. Baranda hondatu zuen zuhaitzak eta lehenbailehen konponduko dutela azaldu du Ricardo Garatek.



Maalako haur parkea heze egoten da: “Euria egin edo ez, Maalako parkeko lurra bustita egoten da askotan. Herriko parkerik handiena da Maalakoa, eta ume asko ibiltzen dira han. Konpondu beharra dagoela iruditzen zaigu. Hezetasunaz gain, ziburuak ere hondatuta daude eta burni bat oso modu arriskutsuan dago lurtean”. Ricardo Garate Hirigintza arduradunak esan du konponketa horiek egiten jardun dutela egunotan eta espero dutela hezetasunaren arazoa ere konpondu izana. Dena dela, gaineratu du, Maala estaltzen dutenean ez dela horrelako arazorik izango.



Gidari batzuk ez dute errespetatzen oinezkoentzako ordutegia: “Lotsagarria da, eta errespetu falta iruditzen zait araututako ordutegitik kanpo hainbeste auto ikustea herriko kaleetan. Santa Ana kalean tokatu izan zait ikustea autoak atzeraka sartzen Sigmako zubitik, kontrako norabidean, eta ez zait bidezkoa iruditzen. Udalak zeozer egin beharko luke lehenbailehen, eta nola edo ahala arauak betearazi behar ditu”.

Sallobenteko berdegunean berrikuntzak egin behar dira: “Eguraldi ona hastearekin bat, asko dira asteburuetan Sallobentera joaten direnak egunpasa, eta hango berdegunean berrikuntza batzuk egitea komeni dela uste dugu. Komunak konpondu edo berri egin beharko lirake, eta lurzorua bera ere bai, zuloz beteta dagoelako. Horrez gain, Udalarri eskatuko nioke fregadera batzuk jartzea ontziak garbitzeko, izan ere, jendeak iturria erabiltzen du, eta ez da lan hori egiteko lekurik aproposena”. Udaleko Hirigintza Saitetik jakinarazi digutenez, haiek ez dute inolako kezarik jaso Sallobenteko komunen gainean, eta momentuz ez daukate Sallobenten berrikuntzarik egiteko aurreikuspenik.



“Oker ez banago, Maalako aterpea aurtengo maiatzerako eginda egongo zela agindu zuen Udalak. Maiatza joan zait, eta oraindik hasi ere ez dira egin. Zer pasatu da Maalako aterpearekin?” Hirigintzara deitu du BARRENEK, eta lanak atzeratu egin direla jakinarazi digute. Tramiteak uste baino gehiago luzatu zaizkie, eta sanbartolomeetarako bukatzea zaila ikusten dutenez, irailerako uztea erabaki dute. Hortaz, irailan hasiko dituzte lanak, Gabonetarako bukatzeko.



Lorontzi dotoreak jarri dituzte San Roken: “San Roke auzoan hainbat berrikuntza egin dituzte azken aldian, eta oso ondo geratu da ingurunea. Orain, gainera, lorontzi dotore batzuk jarri dituzte Arregitorre inguruan, eta itxura dotorea hartu du gune horrek”.



Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Irailaren 7an itxiko dituzte



Mintxetako igerilekuak bihar zabalduko dituzte, Elgoibarko Udalaren webgunean joan zen astean zabalduko zitzuztela jaso bazuten ere. Asteazkenean zehar ingurua garbitzen jardun dute langileek eta dena prest dago biharko. Igerilekuak irailaren 7ra arte egongo dira zabalik, asteleheneetik barixakura 11:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan, 10:00etatik 20:00etara. Iaz, 53.500dik gora erabiltzaile izan zituzten, Udal Kirol Patronatuak emandako datuen arabera, eta erabiltzaile gehien 2009an izan zituzten: 55.056.

Muskulazio gela

Mintxetako muskulazio gelak ordutegi berria izango du aurrerantzean zapatu eta domeketan, ekainaren 14tik irailaren 7ra bitartean. Udako denboraldiko asteburuetan, beraz, 10:30etik 13:30era egongo da zabalik.

Maalako gunea estaltzeko lanak irailera atzeratu dituzte

Maiatzean hasi eta abuzturako amaitu nahi zituzten Maalako gunea estaltzeko lanak, baina azkenean, iraileira hasiko dira gune horretan lanean. Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak jakinarazi du atzerapen batzuk izan dituztela eta ikusita obrak ezingo zituztela sanbartolomeetarako amaitu, lanak irailean hasi eta Gabonetarako amaitu nahi dituzte obrak.

Etxe kaleratze bat antzetzuko dute, egoeraren larriaz ohartarazteko

Etxe kaleratze bat antzetzuko dute Elgoibarren, gero eta familia gehiagok bizi duten egoeraren larriaz ohartarazteko. Elgoibarko Prekariatatearen kontrako Taldeak antolatuta du ekimena, eta Taupada antzerki taldekoak izango dira antzezleak. Ekainaren 20an egingo dute, 19:00etan, San Frantzisko kalean, LABen egoitzan. Talde horrek ohartarazi du hamabi familia jarri direla dagoeneko Etxe Kaleratzeak Stop taldearekin harremanetan.

OTA-TAO gunea, Antonio Arrillaga, Ubitarte eta San Inazio kaleetan


Antonio Arrillaga, Ubitarte eta San Inazio kaleetara ere zabalduko du OTA-TAO gunea Elgoibarko Udalak. Aste honetan lurra margotzen aritu dira langileak, eta Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak jakinarazi duenez, parkimetroak datozen egunetan jarriko dituzte. Bi parkimetro jarriko dituzte: bata, Antonio Arrillaga kalean, eta bestea, Ubitartean. Aita Agirre plazako sistema bera izango du OTA-TAO horrek. Ordubete eta erdiz aparkatu ahal izango da gehienez, doan.

Txankakoako errotonda gaurko konpontzea espero dute



Maiatzaren 31n errepide zati bat hondoratu zen Txankakoako errotonda barruan, eta egunetik egunera zuloa sakonagoa ari zen egiten. Galipota bota eta zuloa betetzen saiatu ziren lehendabizi, baina ikusita konponketa hark ez zuela luze iraun, asteazkenean obrak hasi zituzten, eta horrek eragina izan du trafikoan. Gaur dituzte amaitzekoak lanak.

Pertsonaia **Maria Jesus Elorza**



Maria Jesus Elorza *Karakate* (Elgoibar, 1948) atxilotu zuen domekan Espainiako Poliziak Madrilgo aireportuan. Espainiako Barne Ministerioaren arabera, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan ETAko kide izan zen Elorza, eta polizien aurkako hainbat atentatutan parte hartu zuen. Poliziaren arabera, Donosti komandoan parte hartu zuen Elorzak eta Frantziara ihes egin zuen 1984an. Han, ETAre arlo logistikoa sartu zen eta gero 1996an Venezuelara joan zen. 2006ko abendutik, atxilotzeko eta entregatzeko ordena emana zuen Frantziako Poliziak.

Sariketa **Gure Balioak Sariak**

Gure Balioak Sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Debegesak. Debabareneko eskualdean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo erakundeen jarduna aitortzea eta saritzea du helburu sariak eta hautagaiak aurkezteko epea uztaillaren 15era arte egongo da zabalik. Edonork izango du bere hautagaiak aurkezteko aukera, herritar, enpresa, elkarte, hezkuntza zein ikerketa zentro edota erakundeek. Hautagaiak sortzez Debarrenekoak izan beharko dute edota lan ibilbidea bertan garatu izana eskatuko zaie. Gure Balioak sariaren irabazleak Juan Luis Baroja Collet artistaren eskultura jasoko du. Iaz, Carmelo Urdangarin debarrak saritu zuten. Informazio gehiagorako: www.gurebalioak.com.

Asteko argazkia **Zirkoa Mintxetan**

Parisko zirkoa izan dugu aste guztian Elgoibarren, Mintxetako aparkalekuan. Garai batean sarriago etortzen zen zirkoa gurera, baina orain ez da horren ohikoa, eta horregatik beharbada, ikusmin handia sortu du, batez ere gaztetxoengan. Gaur eskainiko dute zirkokoek azkeneko saioa, 19:00etan.



Ikastolaren eguneko errifa saridunak

Elgoibarko Ikastolak eman du ikastolaren egunean egin zuten errifen zozketaren berri. 119 errifaren jabeak Karakate jatetxean bi laguntzako afaria irabazi du (erreserbako zenbakia: 696), eta 6637 zenbakiak, berriz, Zumaia-Deba-Zumaia Flyscharen labarretatik bi laguntzako itsas irteera gidatua eta bi laguntzako afaria Sigma jatetxean (erreserbakoa: 1295).

Oin Alai proiektuan parte hartzeagatik 70 euroko bonoak, bizikleta erosteko

Elgoibar Ikastolako 30 neska-mutilek eta Herri Eskolako hamabostek parte hartu dute aurten Oin Alai egitasmoan. Parte hartu dutenen artean bizikletak erosteko 70 euroko bonoak zozketatu ditu Udalak eta hauek izan dira sarituak. Ikastolatik: Iria Fernandez, Izaro Bastida, Gares Arriola eta Luken Arriola. Herri Eskolatik: Louren Jimenez, Ivan Migales, Naiara Gonzalez eta Danel Santamaria.

Tripontzi gastronomia lehiaketa gaurtik hilaren 29ra

Eskualdeko Produktu Klubeko diren hainbat jatetxe eta tabernak eta Debegesak sustatuta, Tripontziak lehiaketa egingo da ekainaren 13tik 29ra bitartean. Guztira, hamabi jate-txek eta lau pintxo-tabernak parte hartuko dute, eta horietako bat Elgoibarko Belaustegi jatetxea da. Lehiaketan parte hartzeko, herritarrek establezimendu horietan dastatu duten plater edo produktuen argazki bat igo beharko dute Twitter sare sozialera #tripontziak idatzita. Lehiaketak irauten duen deboran, menu eta pintxo bereziak dastatzeko aukera izango da. Jatetxeetan 25 euroko menu landuak eskainiko dituzte, eta tabernetan bi pintxo eta bi edari lau euroko prezioan. Informazio gehiago: www.debabarrena-turismo/eu/gastronomia.

Asteburuan Trinitateak



Ekintzaz beteriko asteburua izango dugu Elgoibarren eta Mendaron, bi herrietan ospatuko dituzte-eta Trinitate jaiak. Adin eta gustu guztietarako egitaraua prestatu dute eta bakoitzak izango du non aukeratu. Ume zein nagusien danborradak, Elgoibarko azoka berezia edota artisau azokak beteko dute, besteak beste, egitaraua. Erreportaje honen amaieran duzue egitarau guztia.

U rtero bezala Trinitateetako azoka bereziak hasiko ditu jaiak Elgoibarren. Zapatu goizean Elgoibarko baserrietako produktuak eta abereak jarriko dituzte ikusgai Lekuederren eta Aita Agirre plazan, eta horrekin batera, kalitatezko produktuak dastatzeko aukera ere egongo da. Eguerdian, emakumeen arteko trontza txapelketa eta lokotx biltze erakustaldia egingo dituzte Kalegoen plazan. Arratsaldean, bestalde, Inazio Bereziartua musika eskolako dantza ikasleen txanda izango da. Haritz dantzata taldeko kideekin eta Udaleko txistulariekin batera, dantza jaialdia eskainiko dute Kalegoen plazan.

Danbor hotsak gauean iritsiko dira. 23:00etan hasiko da nagusien danborrada, eta herriko kaleak zeharkatuko ditu. Lau urtean behin Getarian, Juan Sebastian Elkano itsas gizonaren jaioterrian, Elkanoren lehorre-

ratzea antzeztu ohi dute, eta horixe hartu du, hain zuzen ere, gaitzat Atabal elkarteak aurtengo danborradarako. Karroza "ikusgarria" izango dela aurreratu du Juan Karlos Arrietak. 800dik gora ordu eskaini dizkiote dagoneko karroza hori atontzeko lanari. 6-7 laguneko taldeak dihardu lanean, eta astean hiru bat aldiz elkartu dira Sigmako indistriguneko lokal batean lanerako. Karrozaren oinarria, traktorea bera, Mendaroko Agustin Lazarobasterrek laga die, eta hori dekoratzen eta jantzen ari dira, erlojuaren kontrako lanean. Arrietak berak aurreratu du aspaldiko karroza ikusgarrienetakoa ikusteko aukera izango dutela bihar elgoibartarrek.

Atabal elkartearen aurtengo omen-duak, berriz, Asier Makazaga zena eta Elgoibarko makina-erreminta izango dira. Asier Makazaga danborradako kidea zen, eta hura gogoan, oroigarri bat emango die te Makazagaren senideei. Omendu nagu-

sia, berriz, makina-erreminta izango da, eta Pedro Ortuondo museoko zuzendariak jasoko du oroigarria. Danborrada hasi aurretik, berriz, aurtengo kartel sarituari dagokion saria banatuko dute. Ander Aranberrik irabazi zuen lehiaketa, eta 300 euroko saria jasoko du bihar.

Domeka goizean, berriz, umeek hartuko dituzte kaleak, eta haien eskutik etorriko dira danbor hotsak. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, 12:00etan hasiko da etxeko txikiaren danborrada, Kalegoen plazan. Horrekin batera, artistek ere izango dute euren lekua domeka goizean. Kaleko margo lehiaketa egongo da batetik, eta bestetik, artisauak euren lanak erakutsiko dituzte Lekuederren.

Mendaron astelehenera arte iraungo dute Trinitate jaiak, eta besteak beste, herri kirolak, Ilkastolako umeen jaialdia, eta musika saioak antolatu dituzte.

Artisau azoka

XARLEM CREATIONS **Maialen Astigarraga eta Larraitz Lopez**



“Gustatzen zaizkigun produktuak egiten ditugu”

Noiz eta nola sortu zen Xarlem Creations?

Orain dela hiruzpalau urte hasi ginen eskulana egiten, baina guretzako gauzak egiten genituen soilik. Jendea hasi zitzaigun esaten gustatzen zitzaizela egiten genituen gauzak eta ia salgai geneuzkan galdetzen ziguten, eta horrela hasi ginen. Baina helburua ez da izan inoiz enpresa bat sortzea. Afizioz egiten dugu hau guztia, eta obligazio sortuko balitz, laga egingo genuke.

Zein produktu egiten dituzue?

Ilerako apaingarriak eta brotzeak egiten hasi ginen, baina orain gauza pila bat egiten ditugu. Eratzunak, ilerako gantxoak, lepokoak, poltsak, kapelak, bururako apaingarriak (tokadoak)... Orain egurrezko lanak egiten ere hasi gara, eta umeentzako eskaintza ere badaukagu. Azken batean, jendeak eskatu ahala joan gara produktuak gehitzen. Teknika berbera erabili arren, estiloan eboluzionatu egin dugu. Erromantiko-vintage estiloko lanak egiten ditugu eta gure hartzaileei gustatzen zaie.

Non erosi daitezke zuen produktuak?

Orain momentuan Facebook bidez saltzen dugu, Xarlem Kreaioak orrialdean, eta tarte-ka *Tupper Xarlem* planak ere egiten ditugu, elkarte edo tabernaren batean gure produktuak erakusteko. Orain dela urte batzuk hasi ginen dendetan saltzen eta irteera ona zeukaten produktuek, baina hileroko konpromisoa eskatzen hasi zitzaizkigun eta ezin genion eskaera horri erantzun. Guk gure lana

daukagu, eta momentuz behintzat ez daukagu enpresa sortzeko asmorik.

Nola prestatzen dituzue azokak?

Azoka aurreko egunetan zoratzen ibiltzen gara. Ordu pila bat sartzen ditugu, baina egia esanda azoketan ondo pasatzen dugu. Elgoibarko azoka berezia izaten da, gainera. Herrian bertan gaude, eta jende ezagun asko etortzen zaigu. Afizioz egiten dugunez lan hau, geuk erabakitzen dugu zein azokatar joan eta zeinera ez. Hasieran gehiago mugitzen ginen, gure produktua ezagutzera eman behar genuelako, baina Xarlemen kasuan iritsi zen momentu bat jendeak asko eskatzen ziguna, eta freno botata behar izan genuen apur bat.

Zein izango da domekako azokan erakutsiko duzuen produktu izarra?

Bururako apaingarriak eta konotierak izango dira aurtengo berrikuntzak. Modan jarri dira, eta harrera oso ona izan dute. Pare bat ezkontza geneuzkan eta guretzako egiten hasi ginen, jendea eskatzen hasi zitzaigun arte. Apaingarri modernoak eta erabiltzeko errazak egiten ditugu. Gaur egun jendeak ez du hainbeste gastatzen soinekoetan eta nahiago izaten du ezkontzaz aparte erabiltzeko moduko soinekoak erostea. Jantzi hori dotoretzeko oso erabilgarriak dira buruko apaingarriak. Gustatzen zaizkigun produktuak egiten ditugu, eta saiatzen gara salgarri den prezioan jartzen.

BEIRAGINTZA

- Talleres Kiara (Bidania)
- Tximeletaglass (Ugao-miraballes)
- Igor Obeso (Iruña)

BITXIAK

- Amala Erkizia (Elgoibar)
- Susana Abad (Elgoibar)
- Ana Moya (Eibar)
- Joana Hernandez (Elgoibar)
- Irati Agirreazaldegí (Elgoibar)
- Naiara Llorente (Santurtzi)
- Edume Askasibar (Elgoibar)

BUZTINGINTZA

- Nerea Etxegarai (Iruña)

EGURREZKO LANAK

- Lekubxu (Gasteiz)
- Roman Aduriz (Errenteria)
- Xabier Isasti (Elgoibar)
- Felix Larrañaga (Berriz)
- Bitor Arrieta (Donostia)

EHUNAK

- Nieves Millan (Gasteiz)
- Zugehina (Elgoibar)
- Xarlem Creations (Elgoibar)

LUTERIA

- Arturo Andrade (elgoibar)

ESKULANAK

- Nieves Maidagan (Deba)
- Jose Membrillera (Elgoibar)

XABOIGINTZA

- Aranzazu Latatu (Castro Urdiales)
- Miren Lizeaga (Herani)
- Garbi (Zegama)

KAKORRATZ LANAK

- Mari Karmen Elortza (Elgoibar)

LARRU LANAK

- E-Mendi (Angiozar)
- Maider Uli (Zumarraga)

MARGOAK

- Emi Nogales (Elgoibar)

OTARGINTZA

- Iñaki Agirrezabala (Matxinbenta)

XERIGRAFIA

- Xebas Larrañaga (Elgoibar)

MENDARON ERE TRINITATEAK

Trinitate baseliza ingurua mendaroarren bilgune izango da gaurtik astelehenera bitartean

Bizi-Poza txarangak hasiko ditu gaur Trinitateko jaiak

Gaur, San Antonio egunez, hasiko dituzte Mendaron Trinitate jaiak, Bizi-Poza txarangaren kalejirarekin, eta bihar, 17:00etan, jasoko dute arbola. Egunik handienak, baina, domeka eta astelehena izango dira, ohi legez. Domekan, txistularien kalejirarekin hasiko dute eguna, eta meza nagusia izango dute gero, 11:30ean. Elizako abesbatzak eta Ameikutz musika eskolako haurrek musikaz eta kantuz jantziko dute meza, eta Josune eta Maite trikitilariak girotuko dute meza ostea. Bitoriano Loiola Ospas-ek eta Sabin Longarte girotu dute urteetan Trinitate jaietako domeka, baina aurten erreleboa hartu diete gazteek. Herri kirol saioarekin amaituko dituzte domekako ospakizunak. Aritz Mugertza

eta Jon Larrañaga bikotea Ugaitz Mugertza eta Igor Reyren kontra ariko dira, aizkoran eta trontzan, besteak beste.

Domekako meza 11:00etan izango da, eta ondoren, ikastolako haurrek bertso jaialdia eskainiko dute. Laja eta Landakandaren trikiti soinuek jarraitu ohi diete bertsoei, baina aurten Olarte izango du lagun Laja soinu jolea, Landakandak erretiroa hartu baitu. 14:30ean, Toki Alai jatetxean bazkalduko dute aurrez txartela erosi duten guztiek, eta antolatzaileek gogorarazi dute gaur dela txartelak erosteko azken eguna. Toki Alain, Aitz-Beltzen eta Txirristakan jarri dituzte salgai, 25 euroan. Gauean, berriz, afaria egingo dute Aizpen. Laja eta Olarte trikitilariak eta bertsolariak girotuko dute afalostea.



SABIN LONGARTE, panderojolea

“Ondorengoak badaudela ikusteak iaz egin ziguten omenaldiak besteko poza ematen dit niri”

Trinitateetako domekan Bitoriano Loiola Ospasí panderoarekin laguntzen ezagutu zaitugu. Iaz erretiroa hartu zenuten biok, eta gazteek erreleboa hartuko dizuzte aurten.

Poza ematen dit niri horrek, poz izugarria. Urte askoan jo dut nik Trinitaten panderoa, baina iritsi zitzaigun lagatzeko ordua ere. Iaz, omenaldia egin ziguten, baina ondorengoak, trikitilari finak, badaudela ikusteak iaz egin ziguten omenaldiak besteko poza ematen dit niri. Panderoa jotzen beste disfrutatuko dut nik aurten gazteei entzunez eta haiek markatutako erritmora dantzan.

Dantza aipatu duzu. Ez dira asko dantzara arimatzen direnak. Zu, berriz, beti.

Bai. Zalea naiz. Aldrebes xamarra ere banaiz dantzan, baina aukera dudan beste alditan egiten dut. Laguna ere dantzazalea daukat eta aurten ere egingo dugu Trinitateetan, okerrik ezean. Jendea lotsatu egiten da, eta ez dut ulertzen zergatik. Dantza egiteak ez luke lotsatzeko arrazoia izan beharko. Ez diogu inorik kalterik egiten. Ingurukoei kalte egiteak lotsarazi beharko luke jendea, eta ez dantza egiteak. Santanetan ere geu hasten gara beti dantzan, laguna eta biok, eta han egoten da jendea begira. Zer pentsatuko duten ez dakit, baina inporta ere ez! Zer dauka ba txarrik horrek?

Mendaron sekula ez da jendea dantza zalea izan. Ezta Elgoibarren ere. Aia aldean-eta, soinua hasi orduko hasten da jendea dantzan. Irekiagoak dira. Hara joan zalea naiz ni, eta hilean behin Itziarren antolatzen duten erromeriarra ere joaten naiz. Afaldu eta goizaldeko hirurak arte egiten dugu dantzan. Blai eginda itzultzen gara handik etxera. 78 urte beteta dauzkat, baina musika entzun orduko pizten zait niri zerbait barruan.

Horrenbeste urtean Trinitaten jota, berezeziak izango dira zuretzat jai hauek, ala?

Izango ez dira ba! Oso bereziak dira. Trinitaterekin lotura berezia daukat nik, gainera. Jaio ere izen bereko kalean jaio nintzen ni, Garagartzan. Gero atzera-aurrera asko egin ditut bizitzan, etxe aldeketa asko ere bai, baina Trinitate buelta hau oso estimatua daukat. Garai bateko erromeria eta... handia izaten zen gero! Baina orduan ere jendeak ez zuen dantza askorik egiten, eta amaitu zen gaueko erromeria. Guk jarraitu genuen, baina, dantzan eta panderoa jotzen, jaien barruan egiten duten bazkari eta afari ostekoetan. Aurten ez dugu hitz egin oraindik eta ez dakit joango garen, baina bestela beti joan izan naiz ni. Trinitate jaietan behin bakarrik fallatu dut nik, eta orduan ere penatan. Bost bat gizon ibiltzen dira antolatzen, eta segi dezatela urte askoan jaiak antolatzen. Gizonak jakin behar du lanean, baina bizitzen ere bai.

TRINITATEAK 2014 ELGOIBARREN

EKAINAK 13

- 19:00: Niala magoa
Maalako parkean. Euria bada, Kultur Etxeko sotoan.

EKAINAK 14


- 10:00: Urpekaritza bataioa
Urbizik antolatuta, Olaizaga kiroldegian.
- 10:00: Trinitateetako azoka
Lekuederren eta Aita Agirre plazan. Elgoibarko baserrietan ekoiztutako produktuak jarriko dituzte salgai, eta abereen erakusketa egongo da Aita Agirre plazan.
- 10:30: Kalejira
Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.
- 11:00: Dastaketa
Baserriko lumagorri oilaskoa eta aire librean hazitako basatxerri txerrien sahieskia eta hirugiharra eta Elgoibarko baserrietan ekoiztutako sagardoa.
- 13:00: Trinitate saria
Emakume trontzalarien txapelketa eta lokotx batze erakustaldia. Kalegoen plazan.
- 14:30: Anaiarteko bazkaria
Lekuederreko karpán.
- 18:00: Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen jaialdia, Kalegoen plazan. Euria bada, Lekuederreko karpán.

- 23:30: Nagusien danborrada
Kalegoen plazan.

EKAINAK 15

- 9:00: Diana
Udal txistulari taldearekin.
- 9:00: Kaleko margo lehiaketa
18 urtetik gorakoentzat. Izena emateko, Kultur Etxeko sotoan.
- 9:00: Ehiza txakurren trinitate txapelketa.
Larraskandan, La Union elkarteak antolatuta.
- 10:00: Artisau azoka
Lekueder parkean.
- 11:00: Meza Nagusia
Parrokiako abesbatzak hartuko du parte.
- 12:00: Haurren danborrada
Kalegoen plazan.
- 14:30: Margo lehiaketako sari banaketa
Kultur Etxeko sotoan.
- 17:30: Erraldoi eta buruhandiak
Zezenzikletekin eta Elgoibarko dultzaineroekin.



TRINITATEAK 2014 MENDARON

EKAINAK 13

- 19:30: Bizi Poza txarangarekin kalejira, jaiari hasiera emateko.

EKAINAK 14

- 17:00: Zuhaitza jasotzea eta kanpai errepika.

EKAINAK 15

- 10:00: Mendaroko txistularien kalejira.
- 11:30: Meza nagusia. Elizako abesbatzaren eta Ameikutz musika eskolako jaialdia.
Ondoren: Txistulariak eta Josune eta Maite trikitilariak.
- 12:30: Herri kirol erakustaldia. Aritz Mugertzak eta Jon Larrañaga arituko dira batetik, eta bestetik, Ugaitz Muger-

tza eta Igor Rey. Aizkoran eta trontzan egingo dute, besteak beste.

Ondoren: Sorpresa.

EKAINAK 16

- 11:00: Meza
- 12:00: Ikastolako haurren bertso saioa.
Ondoren, hamaiketako, Laja eta Olarte trikitilariak girotuta.
- 14:30: Herri bazkaria, Toki Alai jatetxean.
- 20:30: Herri afaria Aizpe gastronomia elkartearen, Laja eta Olarte bertsolariekin.
Txartelak erosteko azken eguna gaur da. Toki Alain, Aitz-Beltzen eta Txirristakan jarri dituzte salgai, 25 euroan.

Historikoa



150.000 lagun baino gehiagok parte hartu zuten Gure Esku Dago herri ekimenak deituta erabakitzeke eskubidearen alde egin zen giza katean. Elgoibarri eta Mendarori 32 eta 33. kilometroak osatzea zegokien eta dozena bat autobus abiatu ziren Bergararantz. Egundoko bero lamada egin zuen, baina ilusioz eta umorez egin zioten aurre herritarrek. Hemen **BARRENEK** giza katean egindako hainbat argazki. Argazki gehiago: www.elgoibarren.net.



IGANDEKOA, AURREKO LANA Elgoibarko Gure Esku Dago

Eskualdeko gainerako herrietako Gure Esku Dago ekimenaren baitango lantaldeek bultzatuta hasi ginen Elgoibarren Kultur Etxeko Sotoan elkartzen. Hasiera nahiko gogorra izan zen, asti gehiegirik gabe genbiltzalako guztiok. Gainera, inork ez zeukan argi egin beharreko lana zein zen, Gipuzkoako lantaldeak berak ere ez zituelako irizpideak horren argi ematen. Hala ere, Debabarrenako eskualdean batzen hasi ginenean, eta denon ekarpenei esker, norabidea zuzentzen hasi ginen, eta taldekide berriak erakartzearekin batera, gauza txukunak egiteko aukera zabaldu zitzaigun.

Elgoibarren ahoz ahoko lanari esker eta ostiralero Kalegoen plazan mahaia jartzeari esker 640 atxikimendu lortu zituen erabakitzeke eskubidearen aldeko ekimenak. Ekainaren 8ko giza katean soraluzetarekin erdibana bete genuen kilometroan, 1.615 pertsonak hartu zuten parte, hasiera batean jarritako helburua bikoiztuz. Orain gutxi arte pentsaezina zen horren jende desberdina herri baten erabakitzeke eskubidearen alde elkarri eskua emanda ikustea eta benetan pozik gaude lortutako emaitzarekin.

Ekainaren 8an giza katera sentsibilitate desberdineko jendea gerturatu zen, eta Elgoibarko lantaldeak aniztasun horren adierazgarri izan behar du. Hala, dinamika honen baitan lan egiteko prest dagoen edonor gonbidatu nahi dugu gurekin harremanetan jartzera. Era berean, oraindik atxikimendua eman ez duenak ere jakin dezala oraindik egin dezakeela elgoibarged@gmail.com helbidera idatzita edo zuzenean guregana gerturatuta.



Arg.: Soarte





ESKERRIK ASKO, MENDARO - Mendaroko Gure Esku Dago

Historikoa izan zen domekakoa, ahazteko zaila. Erabakitze eskubidearen aldeko aldarriak inoiz ez besteko jendetza mobilizatu zuen Euskal Herrian, eta harro gaude. Mendarotik, esate baterako, lau autobuskada joan ginen Bergarara, eta guk dakigula, 240 mendarotarrek parte hartu genuen giza katean. Hilabete askotako lana eskatu du giza katearen antolakuntzak, jakina. Batzar-ordu asko eta whatsapp eta email trukaketa handia izan dugu azkeneko hilabeteotan eta baita lorik gabeko gauren batzuk ere, baina merezi izan du, bai. Ezin pozago gaude elkarlan honek izan duen emaitzarekin, ezin pozago mendarotarrek emandako erantzunarekin. Erakutsi dugu gai garela zubiak eraikitze eta nahi dugula elkarri eskutik heldu eta bidea elkarrekin egitea.

Domekakoa mundiala izango zela genion, eta hala izan zen: sekulako indar eta ilusio erakustaldia. Bergaratik bueltan denok aipatzen genuen hunkigarria eta ilusionagarria izan zela, eta goiz jaiki eta eguneko ordurik beroenak eguzki galdatan egotea egokitu bazitzaigun ere, merezi zan zuela eta merezi duela bide honetan pausoak ematen jarraitzea. Euskal Herriak bere etorkizuna erabaki ahal izatea gure esku dago, herritarren esku, eta sinistuta gaude mendarotarrok geure onena emango dugula. Hau hasi besterik ez da egin, baina igandekoak luze jarraitzeko indarra eman digu. Eskerrik asko, Mendaro.





Gaur jokatuko dituzte Lagunak pilota txapelketako finalak Kalegoen plazan

18:00etatik aurrera izango dira partidak

Gaur arratsaldean jokatuko dituzte Kalegoen plazako frontoian Lagunak pilota txapelketako alebiren eta benjaminen finalak, 18:00etatik aurrera. Aurten, 30 neska-mutiek hartu dute parte txapelketan, eta eguaztenean gelditu ziren zehaztuta gaurko finalak. Benjaminetan Alex Bergua eta Iker Izagirrek jokatuko dute, eta alebinetan Danel Zubizarretak eta Unai Sanchezek.

Finalen ostean, lau térdiko pilota partida jokatuko dute Kondek eta Txurrukak.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Lau t'erdiko Udaberri Txapelketa
Lagunak 14 – Gazteleku 22 (Nag.)
Intxurre 20 – Lagunak 22 (Nag.)

AGENDA

PILOTA (Ikastolan)

Lau t'erdiko Udaberri Txapelketa
Barixakua, 13
21:30 Lizarralde (Lagunak) – Txurruka (Azkoitia) (Nag.)
Lagunak txapelketako finala
18:00 Benjaminen finala
18:40 Alebiren finala
19:00 Konde-Txurruka (Lau t'erdiko

Lurdes San Martin eta Miren Ramos, bularreko minbiziaren kontrako lasterketan

Lurdes San Martin eta Miren Ramos ama-alabaek domekan Gasteizen jokatu zen bularreko minbiziaren kontrako lasterketan parte hartu zuten, eta garaikurrekin itzuli ziren etxera. Lurdes San Martinek bigarren egin zuen beteteranoetan, eta ama-alaben kategorian lehenengo sailkatu ziren elgoibartarrak. Amamen sailean, lehenengo postuan sailkatu zen Lurdes San Martin.



Josu Alvarez txirrindulari gaztea hirugarren, Mendaron



Josu Alvarez infantil mailako txirrindulari gazteak hirugarren egin zuen joan zen zapatuan Mendaroko industriagunean jokatu zuten lasterketan. Elgoibarko Lagun taldeak antolatuta ohi du lasterketa hori, eta Josuz gain, Ion Ibarluzea eta Gorka Lopez Iturriaga-Lagun Taldeako txirrindulariek ere parte hartu zuten.

Egoitz Mendizabal izango da Haundiko entrenatzailea

CD Elgoibar hasi da datorren denboraldia prestatzen, eta dagoeneko erabaki dute zein izango den Haundiko entrenatzailea: Egoitz Mendizabal ore-retarra. Touring taldea entrenatzen iritsiko da Mintxetara.



Ekainaren 26an egingo dute CD Elgoibarko batzar nagusia

CD Elgoibarko zuzendaritzak jakinarazi du hilaren 26an egingo duela urteko batzar nagusia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Batzarreko gai-ordenan hiru gai sartu dituzte: urteko balantze ekonomikoa, kirol balantzea eta galderak eta iradokizunak egiteko tarteak. CD Elgoibarko bazkideak parte hartzera deitu dituzte.

Jende bila ari dira Debabarrenean nesken waterpolo taldea sortzeko

Emakumezkoen waterpolo taldea sortu nahi dute Debabarrenean eta jende bila ari dira. Hala jakinarazi du Urbat taldeak. Harremanetarako helbide elektronikoa bat eta telefono zenbaki bat eman dituzte: waterpolo@urbat.es / 688610627.

Ekainaren 30etik uztailaren 13ra areto futboleko mundialittoa

CD Debabarrena areto futbol taldeak mundialittoa antolatu du 6 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat. Ekainaren 30ean hasiko da, eta uztailaren 13an bukatu, baina izena emateko epea bihar amaituko da. Interesatuak bi aukera dituzte horretarako: debabarrena@debabarrenafs.org helbidera idatzita edo eta 658 275 525 telefono zenbakira deituta.

250 lagunek hartu dute parte 'Elgoibar bi erroberatan' egitasmoan

Distantzia laburretan bizikleta erabiltzea sustatu nahi dute antolatzaileek

Distantzia laburretan bizikleta erabiltzeko ohitura sustatzeko asmoz, *Elgoibar bi erroberatan* ekimena sortu zuen Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, eta aurten hamargarren edizioa burutu dute. Domekan egin zuten Sallobentera joan-etorria, eta 250 lagunek hartu zuten parte guztira. Antolatzaileak kezkatuta zeuden Gure Esku Dago ekimena zela-eta jende gutxik parte hartuko ote zuen, baina azkenean "pozik" agertu dira izandako parte-hartzearekin. Aurten gainera, partaide berezi bat izan dute animoak ematen: 2015ean Elgoibarren ospatuko den Euskal Eskola Publikoaren jaioko maskotak, Jata erleak, txirrindulariak hauspotu zituen-eta antolatzaileen furgonetatik, eta aldapak igotzeko beharrezko animoak eman zizkien guztiei. Salloben-



ten atseden txiki bat hartu ostean, berriz jaitsi ziren denak Kalegoen plazaraino, eta mokadua janez berreskuratu zituzten indarrak. Horrez gain, etxeko txikientzako proba bat ere prestatu zuten Kalamua gu-

raso elkartekoek. Molto motoetan, trizikloetan eta bizikleta txikietan bi itzuli eman zituzten erdiguneko kaleetan barrena. Argazki gehiago www.elgoibarren.net atarian.

Jose Mari Oruesagasti omendu zuten Pedrusko taldeko jokalaria ohiek



Pedrusko taldea 2007an desagertu bazen ere, taldeko hainbat jokalaria ohiek lagunarteko partida jokatu zuten joan zen zapatuan, garai zaharrak gogoratzeko. Partidaren ostean taldeko presidentea izan zen Jose Mari Oruesagastiri omenaldia egin zioten, taldea indarrean egon zen urteetan egindako lana eskertzeko. Ondoren, afaltzera joan ziren guztiak.

Pilar Arriolak irabazi du Galdaramiñoko igoera beteranoetan

Eibarko Urki auzoko jaien barruan, Galdaramiñora igoera jokatu zuten joan zen asteburuan, eta beterranoen mailan Pilar Arriola elgoibartarrak irabazi zuen lasterketa, 1:40:45 denborarekin.



Fuente De-ko kilometro bertikala irabazi du Larizek bigarren goz jarraian

Bere marka onduz, errekor berria ezarri du elgoibartarrak

Kilometro Bertikalen Espainiako Kopako bigarren proba jokatu zuten domekan Fuente De-n (Kantabria), eta bigarren urtez segidan, Iñigo Lariz elgoibartarrak irabazi zuen proba. Ia bost kilometroko ibilbidean 900 metroko desnibel positiboa gainditu behar zuten lasterkariak, eta 37:57 denborarekin, Lariz izan zen azkarrena. Denbora horri esker, iaz Larizek berak ezarritako errekorra (39:37) hobetu zuen gainera. Lehia estua izan zuen Larizek Javier Crespo kantabriarrarekin, baina azken metroetan aurrea hartu zion elgoibartarrak.

Iñigo Lariz Kilometro Bertikalen Espainiako Kopako sailkapenean lehen postuan dago. Lau probak osatzen dute Espainiako bertikalen kopa, eta momentuz bi jokatu dituzte. Hirugarrena uztaila-



ren 26an jokatuko dute Leonen, eta proba hori Kilometro Bertikalen Espainiako txapelketa izango da. Azken proba abuztuaren 9an izango da Arredondon (Kantabria).

Gipuzkoako eskubaloi kopa irabazi du Tecnifuelle taldeak kadeteetan



Domekan jokatu zuten Gipuzkoako eskubaloi kopako finala Olaizaga kiroldegian, eta Sanloko Tecnifuelle taldeak 19-12 irabazi zion Donostiako Bera-Bera taldeari. Gipuzkoako federazioak gainera, Alaitz Egaña aukeratu du Gipuzkoako jokalaria onena, kadeteetan. Espainiako eskubaloi txapelketaren azken fasetik esku hutsik itzuli ostean lortu dute garaipena kadete neskek, eta hala, aho zapore onarekin eman diote amaiera denboraldiari. Ezbairik gabe lorpenez beteriko denboraldia izan da aurtengoa ere Sanlorentzat, eta hori guztia ospatzeko, denboraldi amaierako festa antolatu dute ekainaren 28rako. Festari buruzko informazio gehiago www.sanlo.net webgunean.

Elgoibarko judokak Usurbilgo txapelketan

Judo denboraldiko azken jardunaldia jokatu zuten joan zen asteburuan Usurbilen, eta Elgoibarko judoek emaitza ona eskuratu dituzte alebin eta benjaminetan. Pedro Berazak lehen postua eskuratu zuen alebinetan, eta Xuban Muguruza, Julen Ruiz eta Nerea Cintok bigarren egin zuten baikoitzak bere kategorian. Benjaminetan, berriz, David Mendazona eta Ibai Arantzabalek lehen postuan amaitu zuten txapelketa.



Ibilbide osasungarriak Mintxetan

Mintxetatik hasten diren bi ibilbide osasungarri buruzko informazioa ematen duen panela jarri du Kirol Patronatuak Mintxetako sarreran. Lehenengo ibilbideak 1.150 metroko luzera du, eta Mintxetako instalazioen inguruan dago kokatuta. Bigarren ibilbideak 5.260 metro ditu, eta Mintxetan hasita, Sallobenteko ermitaraino joan-etorria proposatzen du.

Kirol tresna berriak Mintxetako aparkalekuan

Kirol Patronatuak kirola egiteko hiru tresna gehiago jarri ditu Mintxetako aparkalekuan dagoen aire libreko gimnasioan: bizikleta, arrauna eta barrak. Herritarrek edozein ordu eta egunetan erabilgarri dituzte.



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatoz bazkaltzera
txarangaren kalejira amaitu ondoren?
17:00etan, Sigmako aparkalekuan
Animatu, primeran pasako dugu-eta!



Txikixan haundi



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleen topagunea

Izenematea **BARREN astekarian** edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoiBARREN.net)
Izena emateko azken eguna uztailaren 18a.

UDA IKASTAROA

- ▶ Iraupena: 80 ordu
- ▶ Ekainaren 27tik uztailaren 24ra (3 ordu egunean)
Irailaren 8tik 19ra (2 ordu egunean)
- ▶ Prezioa: 123 euro
- ▶ Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 77 euro
- ▶ Bekatze-sistema
- ▶ Matrikulaldia: ekainaren 24ra arte

LAN-POLTSA

DEBABE Udali Euskaltegiak 3 urterako lan-poltsa sortu behar duela jakinarazten du. Bertan izena eman nahi dutenek Elgoibar, Deba eta Mutrikuko udaletako web orrietan eta Udali Euskaltegiatiko DEBABEren webgunean irakurri ahal izango dituzte oinarriak.

Dokumentazioa Elgoibarko Udali Euskaltegiko
Idazkaritzan aurkeztu behar da.

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - GIPUZKOA
Telefonoa: 943 742 731
E-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

Euskara

emaiozu
euskararil
dale al euskeral

Udako ikastaroak
Cursos de verano

ikasturteacurso
13/14
matrikula zabalik
matrícula abierta

UDAL
EUSKALTEGIAK

Gaur arratsaldean aurkeztuko dute Felix Etxeberriari buruzko liburua

19:30ean izango da ekitaldia, Musika Eskolan

Felix Etxeberria *Parapani* buruzko liburu biografikoa idatzi du Xabier Lasa andoaindarrak, Etxeberria beraren suinak. Felix Etxeberriaren haurtzarora eta gaztarora, kirolerako izan duen zaletasuna, eremu politikoan euskaltasunaren alde eginiko lana, Danobat eta Etxepe lantegien sorrera prozesuak eta euskalgintzan egindako ibilbide emankorrak jaso ditu, besteak beste, liburuan. Gaur arratsaldean aurkeztuko dute liburua musika eskolako auditorioan, 19:30ean. Interesatuak Elgoibarko Izarra kultur elkartearen, Elgoibar Ikastolan edo Pitxitxu eta Gorostiza liburu dendetan erosi dezakete liburua.



Sallobenteko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute

Abuztuaren 8tik 10era ospatuko dituzten Sallobenteko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, bakoitzak nahi duen teknika erabiliz, baina ezinbestekoa izango da ondorengo testua agertzea: "Sallobente-Ermuarango jaiak 2014. Abuztuak 8, 9 eta 10". Lana A2 edo proportzionala den neurrian egin beharko da. Interesatuak uztaillaren 4rako entregatu beharko dituzte lanak, sallobente.elkartea@gmail.com helbidera bidalita. Irabazleak 120 euro eta bi lagunentzako afaria jasoko ditu.

Haur eta Gazteen Espainiako II. konferentzian parte hartuko dute Elgoibar Ikastolako ikasleek



Elgoibar Ikastolako ikasleek Haur eta Gazteen Espainiako II. konferentzian (II. Confint) hartuko dute parte Bartzelonan. Iñigo Urkullu lehendakariak egin zien harrera ikasle horiei Busturian. Euskal Erki-degoko zazpi ikastetxek hartuko dute parte, Bizkaiako bostek eta Gipuzkoako bik. Azaroan joango dira guztiak Bartzelonara.

Malako Jai Batzordearen deia

San Bartolome jaiak elkarlanean antolatzeke deia egin die Malako Jai Batzordeak herriko norbanako eta eragileei. Jai eredu desberdina sustatu nahi dute; parte hartzailea eta herritik sortutakoa. Interesatuak ondorengo helbidera idatzi dezakete: malakojaibatzerdea@gmail.com.

Euskara ikastaroak udan, AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak uztailean eta irailean eskolak emango ditu EGA, IRALE, IVAP, Osakidetza zein HABEK antolatzen dituen azterketak prestatzeko. Udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenek matrikula erdia baino ez dute ordaindu beharko. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, AEK euskaltegira (PlazaTxikia, 3) jo daiteke; 607 601 423 telefonora deitu edo elgoibar@aek.org helbidera idatzi. Izena emateko epea ekainaren 27an bukatuko da.

Gazteen Eguna elkarlanean antolatzeke deia

Gazteen Eguna elkarlanean antolatzeke deia egin du Gazte Asanbladak. Koadrila bakoitzetik ordezkari batak gutxienez hartu beharko du parte antolakuntzan. Lehenengo bilera ekainaren 22an egingo dute, 18:00etan, Gaztetxean.

Kirol argazkien lehiaketa

Elgoibarko Udalak kirol argazkien lehiaketa antolatu du, Ongarri argazki taldearen laguntzarekin. Kirolarekin zerkusua duten argazkiak aurkeztu daitezke, eta partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehiezin. Argazkiak paperean aurkeztu beharko dira, Olaizaga kiroldegian. Lanak entregatzeko azken eguna uztaillaren 18a izango da, eta sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute. Sarituek egun horretan agertu behar dute sari banaketa ekitaldira, edo bestela ordezkariaren bat bidali beharko dute. Ez bada inor agertzen, saria balio gabetu egingo dute.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **632 126 668**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen eta garbiketarik egiten esperientzia handia. ☎ **602 828 601**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna. ☎ **684 216 396**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **676 730 622**
- Emakumea eskaintzen da, adinekoak zaintzeko. ☎ **648 111 540**
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko, baserriak edota elkarrekin garbitzeko... ☎ **686 077 316**
- Emakumea lanerako prest: Sukaldari laguntzaile edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **606 354 982**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Gauzez ere bai. ☎ **660 551 781 / 943 742 330**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Garbiketa lanak egiteko ere prest. ☎ **631 832 767 (Eva Ramirez)**
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **610 658 914**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **632 126 668**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- Emakumea eskaintzen da etxebizitzak, tabernak, elkarte gastronomikoak eta portalak garbitzeko. ☎ **697 702 158**
- Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Gomendiozko gutuna dauka. ☎ **631 832 767**
- Emakume arduratsua, umeak eta adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere egingo luke lan. ☎ **675 512 267**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo lituzke, eta interna moduan lan egiteko prest legoke. ☎ **680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **648 826 638**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **636 362 251**
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **630 764 528**

ETXEBIZITZAK

- Pisua alokatzen dut Donostian, Gros auzoan. Ikalseentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten garaian. 3 logelakoa. ☎ **639 775 253 (Juan Andres)**
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa. ☎ **603 237 932**

OSPAKIZUNAK

- 1964an jaiotako eta 50 urte beteko dituzten elgoibartarren bazkaria ekainaren 21ean, Sigma jatetxean. 11:45ean batuko dira plazan, eta zapiak banatuko zaizkie guztiei. 12:00etan meza izango dute parrokian, eta ondoren, argazkia aterako dute. Segidan, Ibai Ondo jatetxean luntxa egingo dute, eta 15:00etan izango da bazkaria, Sigman.

BESTELAKOAK

- Liburuak oparitu nahiko nituzke. ☎ **683 338 479**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Lekuederren. 3. solairuan. Jausoron garajea salgai edo alokairuan. ☎ **652 727 631**

PARTIKULARRAK

- Uztaileko goizetan klase partikularrak emango nituzke, Mendaron. ☎ **666 614 519 (Oihana)**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Bikote bat gara eta duela hiru urte etxebizitza erosi genuen. Etxea erosteko orduan, gutako bakoitzak diru ekarpen bat egin zuen, nor berea, eta ezberdina. Nik, esate baterako, nire bikotekideak jarri zuenaren halako bi jarri nuen. Hipoteka mailegua eskatu genuen, eta orduan, hileko kuota erdibana ordaintzen egon gara, kantitate berdinetan.


Orain, harremana eteteko paperak tramitatzen ari gara, eta zalantza daukagu etxebizitza horren ze parte dagokigun bakoitzari.

Notario aurrean izenpetu zenituzten eskriturretan daukazue jasota erosi zenuten etxebizitza hori bakoitzari zein portzentajetan dagokizuen, orduan zehazten baita hori, gerora egin dituzuen diru ekarpenak aintzat hartu gabe. Hipoteka maileguaren kuotak erdibana ordaintzen jardun duzuen arren, notario aurrean jaso zenutenak dauka balioa, ez gerokoa. Etxea erosteko orduan zegokiona baino diru gehiago jarri zuen pertsona horrek, baina, aukera dauka behar zuenetik gora jarri zuen diru hori itzultzea eskatzeko.

GOMENDIOA: Komeni da bikotekide bakoitzak notarioaren aurrean etxebizitzaren salerosketa izenpetu zutenean zehaztu zuten portzentajearen ordaintzea hipoteka maileguaren kuota.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Patxi**, zure egunean. Ondo pasa, eta prestatu sorpresatarako. Maleta prest? Muxu bat, denon partez.



• Danbor hotsen artean, **Mariaren** hirugarren urtebetetzea ospatuko dugu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoon partez.



• Bat, bi, hiru, lau, bost! Eskubete urte, txapeldun! Zorionak, **Endika**, bereziki Markelen eta Danelen partez.



• Zorionak, **Lier**, Kurrukito! 4 urte erraldoi beteko dituzu astelehenean. Gizontxo bat eginda zaudel! Ondo pasa!



• Zorionak, **Izar**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat, etxekoan partez, eta bereziki, Oihanen partez.



• Zorionak, **Lander**, gaur 3 urte betetzen dituzulako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak **gure etxeko printzesari**, asteartean 6 urte bete zituelako. Muxu potolo bat, etxekoon partez.



• Zorionak, **Jone**, ekainaren 10ean 5 urte egin zenituelako. Aita-txo, lehengusu-lehengusina eta osaba-izeben partez. Muxu bat.




• Zorionak, **printzesa**, zure seigarren urtebetetze egunean. Muxuak, aitatxo eta amatuoren, eta bereziki, Lorenaren partez.



• Zorionak, **Malen**, astelehenean 5 urte! Ondo-ondo pasa eta muxu handi bat familiakoen eta bereziki Intza, Naia, Haizea era Harrieten partez.



• Zorionak, **Ainara** eta **Eneko**! Zuen ezkontza eguna zorionsu eta giro bikainean ospa dezazuela! Koadrilako lagunaren partez.



• Zorionak, **bikotea**! Ondo pasa zuen egun handian. Muxu handi bana.

Zoriondu ezazu **BARRENEN!**

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€

Argazki bikoitza:

7€

Hirukoitza:

9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

3'50€

Argazki bikoitza:

6€

Hirukoitza:

8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:

12€

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lan postuak betetzeko deialdia luzatzen du:

Doimak

● **LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN HIRU MUNTATZAILE.**
(INGELESEKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen kurrikulumak adminis@doimak.es helbide elektronikora edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu

13 barixakua

Gastronomia

19:00 Pintxo lehiaketa

Elgoibarko Udalak antolatuta, pintxo lehiaketako azken eguna.

Aurkezpena

19:30 'Parapango akuilua'

Felix Etxeberriari buruzko liburua aurkeztuko dute, Musika Eskolako auditorioan.

Dantza

20:00 '40 principailes'

Biraka dantza taldeak antolatuta, Herriko Antzokian.

Bakarrizketa

22:30 'Euskalduna naiz eta arraro nago'

Baltziskueta eta Barry Barrez-ek aurkeztuko dute bakarrizketa, Mendaroko Gaztetxean.

14 zapatua

Aisiladia

10:00 Igerilekuen irekiera

Mintxetako aire libreko igerilekuak irekiko dituzte.

Erakusketa

18:30 'Kyoto Rikyu'

Javier Landerasen argazki erakusketa ikusteko azken eguna izango da. Kultur Etxean.

16 astelehena

Erakusketa

18:30 Margo lehiaketako lanak

III. kaleko margo lehiaketako lanak jarriko dituzte ikusgai hilaren 22ra arte, Kultur Etxeko sotoan.

19 eguena

Hitzaldia

19:00 Kutxabanken pribatizazioari ez

Bilduk antolatuta, Ainhoa Beola eta Ino Galparsoro izango dira hizlariak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20 barixakua

Aisiladia

17:30 Kiribil

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

Antzerkia

19:00 Etxe kaleratzea

Prekariatetari Stop taldeak etxe kaleratze bat antzeztuko du, San Frantzisko kalean, LABen egoitzan.

Bideo forum-a

21:30 'Nacidas para morir'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

Musika

23:00 Metal gaua

Sinuosek antolatuta, metal estiloko musika entzuteko aukera izango da Maalako parkean.

BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK


09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
13 Fernandez 14 Yudego 15 Yudego 16 Barrenetxea 17 Ibañez 18 Yudego 19 Etxeberria 20 Fernandez	Astehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142


Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Uztailaren 14tik 18rako,
koadrilen arteko olinpiar jokoak
antolatu ditugu!
15 urtetik gorakoentzat.

Datorren asteko ostiralean,
ekainaren 20an, bukatuko da
udako irteeretan
izena emateko epea.



EMAKUMEEN BIZITZA HOBETZEAREN GAINEAN ENTITATE PRIBATUEK EZ DUTE ERANTZUKIZUNA BEREGANATU BEHARKO DUTE.

* Onartzea 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak sartzeari buruzkoa. Hor zehazten da berdintasuneko hainbat plan lantzeko eskakizuna, honelako alderdiak jasoko dituztenak: lan baldintzak hobetzea, sektore maskulinizatuetan emakumeak kontratatzea, bateragaritasuna eta ardura partekatua sustatzea, indarkeria matxistaren arloan prebenitzea eta esku hartzea, eta abar.

** Sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, berdintasun arloko zerga pizgarriak lehenesteko proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta: emakumeen enplegu mugagabearen sorrera eta emakumeen lan baldintzen hobekuntza; ardura partekatua, eta bizitza pertsonalaren, familia bizitzaren eta lan bizitzaren bateragaritasuna; jarrera sexisten gaineko prebentzioa eta jazarpen sexistaren gaineko esku-hartzea; eta abar.

*** 2013an, bikoiztu egin dira berdintasun klausulen kopurua, eta halakoak jasotzen dituzten kontratazio espedienteen kopurua ere bai: lehen, 32 kontratu ziren -13,7 milioi euro, guztira-, eta orain, berriz, 71 kontratu -26,9 milioi euro, guztira-.

**** 2013an, ugaldtu egin dira berdintasun klausulak, baita halako klausulak jasotzen dituzten diru laguntza deialdiak ere.

Anchústegui

www.anchustegui.com

Zatoz, gure produktu berriak ezagutzera.

MAHAI TOLESGARRIA
ETA BI AULKI



99€

BI AULKIRAKO
KUXINAK



21.95€

EGURREZKO FAROLAK



13.95€tik

GREEN MANGERA
KIT-A



10.95€tik

IRONSIDE PISTOLA



7.95€

BELARRA MOZTEKO
MAKINA



199€

HESKAIA MOZTEKO
IRONSIDE 450W MAKINA



44.95€

COMPO SUBSTRATU
UNIBERTSALA



4.35€tik

BURDINDEGIA

Hemen daukazue
Udaberri-udako katalogoa.
Zatoz zurearen bila. Harrituko
zara gure prezioak ikustean.

- ✦ Lorategiko altzariak
- ✦ Jantzitegiak eta babesgarriak
- ✦ Margoak
- ✦ Material elektrikoa
- ✦ Iturgintza
- ✦ Eskuzko erremintak
- ✦ Erreminta elektrikoak
- ✦ Burdindegi industriala
- ✦ Eraikuntzako materialak
- ✦ Etxeko tresnak

BARBAKOA ERAMANGARRIA



34.00€

ARTE-IKATZA
3, 10 ETA 20 KILOKO
POLTSAK



SUA PIZTEKO
24 PASTILLA
EKOLOGIKO



ZERMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK

